



## SARRERA PROBAK

### Eredua

#### A3: MUSIKAREN HISTORIA ETA MUSIKA-KULTURA

##### 1. ZATIA [15 minutu, 10etik 6 puntu]

###### ♩ 1. entzunaldia: H. Purcell: *Chaconne (The Fairy Queen)*

1. Baxu ostinato baten gaineko hainbat bariazio ditu pasarte honek. Zein da laugarren bariazioaren instrumentazioan gertatzen den aldaketa? **Baxu jarraitua desagertzen da.**
2. Zein garaitan konposatu zen dantza hau?
  - a) Erdi Aro berantiarra
  - b) **Barrokoa**
  - c) Klasizismoa

###### ♩ 2. entzunaldia: G. Verdi: *Addio del passato (La Traviata)*

1. Zein instrumentuk hasten du aria eta berragertzen da geroago sopranoaren fraserdi batzuk imitatzen? **Oboeak**
2. Verdiren *Traviata* operaren aria honek Violetaren tristura islatzen du, bere heriotzaren hurbiltasunak eta bere iraganaren nostalgiak eragiten dion tristura. Dena den, “*Della Traviata sorridi al desio*” bertso-lerroan aldaketa emozional bat (itxaropena) bizi du protagonistak eta *crescendo* batekin nabarmentzen du hori konpositoreak, eta, batez ere, beste baliabide batekin:
  - a) **Minor modutik maior modurako aldaketa**
  - b) Aldaketa instrumentazioan (solotik tuttura)
  - c) Maior modutik minor modurako aldaketa

###### ♩ 3. entzunaldia: M. Ravel: *Pavane de la belle au bois dormant (Ma Mère l'Oye)*

1. Zer soinu-efektu mota erabiltzen dute hariiek mugimenduaren akonpainamenduaren zati handiengan? **Pizzicatoa**
2. Zein musika-estilorekin lotuko zenuke obra hau?
  - a) Primitibismoarekin
  - b) **Inpresionismoarekin**
  - c) Espresionismoarekin



## musikene

2. ZATIA [10 minutu, 10etik 4 puntu] [letra lodian eta azpimarratuta gezurrezkoak]

1. A-B-A-C-A forma rondo batena izan daiteke.
2. Musika seriala seriean konposatutako musikari erreferentzia egiteko aipatzen da.
3. *Pierrot Lunaire* eta *Udaberriaren Sagaratzea (The Rite of Spring)* XX. mendeko bi obra dira.
4. Ravelen katalogoak pianorako obrak biltzen ditu soil-soilik.
5. “*Cantus firmus*” konposizio polifoniko bateko ahots batean jartzen den melodia bat da, beste konposizio batetik hartzen dena.
6. Erdi Aroan, musika eta testua gehitzearen ondorioz liturgiaren elementu estandarrak luzatzea zen tropatzea.
7. Aldi klasikoan, opera garrantzi gutxiagoko musika-genero bihurtu zen aurreko aldiekin alderatuta.
8. Giovanni Pierluigi da Palestrina Errenazimenduko konpositore ospetsua izan zen, musika erlijioso polifonikoan eragin zuen berrikuntzarengatik ezaguna.
9. Richard Wagner "Nibelungoaren eratzuna" ("Der Ring des Nibelungen") obraren konpositorea izan zen, "Trilogia" izenez ezaguna, hiru operaz osatua baitzegoen.
10. Madrigala ahots-pieza bat da, normalean polifonikoa, alde aurreko poema bati musika jartzen diona.
11. Kontratenorra tenorrarena baino erregistro baxuagoa duen abeslari bat da.
12. Suite barrokoa tonalitate bereko hainbat dantza biltzen zituen forma musikal bat zen, dantza bakoitzak bere izaera eta erritmo bereizgarriak bazituen ere.
13. Errenazimenduan, ahots-musikak zein musika instrumentalak garapen handia izan zuten eta garrantzitsuak izan ziren, halaber, musika-agertokian.
14. Norma G. Pucciniren obra bat da, eta Tosca, aldiz, V. Bellinirena.
15. Sistema tonala Barroko aldian garatu zen erabat, garai hartako musikarako oinarri harmoniko koherente bat eskainiz.
16. Mesías izenburuko bere oratorio ospetsuarengatik ezaguna den konpositore barroko italiarra izan zen Antonio Vivaldi.
17. Klasizismoan musika emozionalagoa eta espresiboagoa bihurtu zen aurreko aldiekin alderatuta.
18. Ganbera-musikak gora egin zuen Klasizismoan, hainbat konpositorek –Haydnek, Mozartek eta Beethovenek, besteak beste– idatzitako hari-laukote eta piano-trio ugarirekin, eta talde txikitarako idatzitako beste obra batzuekin.
19. Erdi Aroko trobadore eta troberoek erlijioarekin lotutako kanta monodikoak idazten zituzten.
20. L. van Beethovenek bost kontzertu konposatu zituen biolinerako, baina kontzertu bakarra pianorako.